

# HITZA

## Azkoitiko GKE diren taldeen lana gizarteratzeko Garapenean Bidelagun antolatu dute

Azaroaren 25era bitartean herritarrak pobrezia-aren inguruan sentsibilizatzeko ekintzak prestatu dituzte Azkoitiko Udalak eta herriko zortzi taldek // 7

**Orio** Lourdes Salsamendi izango da EAren Orioko alkategaia datozen udal hauteskundeetan // 3



**MAPFRE**

PARTIKULARRENTZAKO ETA ENPRESENTZAKO PRODUKTUAK

AUTOAK - BIZI ETA ISTRIPU ASEGURUAK - JUBILAZIOA - ETXEBIZITZAK - EGUNEKO BAJAK B.G.A.E. (E.P.S.V.) eta INBERTSIOAK - MERKATARITZA - MEDIKU ASEGURUAK - HERIOTZA

Konpromisorik gabeko aholkularitza profesionala. Ezagutu MAPFREk eskaini diezazukeen guztia. Galdetu lasai:

Belén Iñarrairaegui Bastarrica  
MAPFRE Zarautz Araba 12  
Tel.: 943-89 42 70 - Mug.: 605 70 65 20  
email: belenib@mapfre.com



## K1 ERAKUSTALDIA ZARAUTZEN

K1-Euskadi Txapelketako zazpi borrokaldi jokatu dira Aritzbatalde kiroldegian. Asier Izpizua irabazi du gerrikoa. Jendetza bildu du ekitaldiak // 3

ZARAUTZKO.HITZA.EUS



- ETXEKO BERRIKUNTZAK
- TELEKOMUNIKAZIOAK
- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
- ARGIZTAPENA
- DEKORAZIOA
- KONPONKETAK
- ANTENAK

BEROGAILU EZIN HOBEA

Aurrekontu pertsonalizatuak



Akumuladoreak eta bero urdina Programazio zentralizatua eta erraza Instalazio azkarra

Araba kalea, 41 ZARAUTZ (Maxi Eroski ondoan) • 943-13 04 33 - 619 52 35 39 • azkuelek.com

# Zabaldute dagoeneko 33. Zarauzko Triatloian izena emateko epea

33. aldiz jokatuko dute Zarauzko Triatloia, datorren urteko ekainaren 8an • Aurten, aldaketak izango dira izena emateko prozesuan

## -ERREDAKZIOA

Zarauzko 33. Triatloian parte hartu nahi duten kirolariek badaukate bertan izena emateko aukera dagoeneko, azaroaren 26ra arte. Hain zuzen ere, webgune honetan egin beharko dute: [www.rockthesport.com](http://www.rockthesport.com).

Ekainaren 8an izango da 2019ko Zarauzko Triatloia, eta izena emateko prozesuan berrikuntza batzuk izango dira aurten. Orain arte bezala, aurreko urteko Zarauzko Triatloiko lehen hamar triatletek izena ematea doan izango dute, eta lekua gordeko diete antolatzaileek. Horrez gain, aurreko hiru urteetako parte hartzaile guztien sail-

kapen orokorreko lehenengo hogeitri triatletek ere lekua gordeta izango dute triatloirako, baina gainontzeko parte hartzaileen gisan, ordaindu beharko dute.

Neurri horien bidez, parte hartzaileen kirol maila altua bermatu nahi dute antolatzaileek. Aurreko hiru edizioetako lehen hogen horiek dortsalen zozketa baino lehenago eman beharko dute izena, azaroaren 28a baino lehen, alegia.

## 700 atleta eta lan asko

Dortsalen zozketa azaroaren 28an egingo dute, eta horren ostean, dortsala egokitu zaien parte hartzaile guztiek izena emate-



2018ko Zarauzko Triatloiko bizikleta probako une bat. AMAIA URBIETA ARRUTI

ko mezu bat jasoko dute. Triatloiko izen-ematea ofizial egiteko, 150 euro ordaindu beharko dituzte abenduaren 2a baino lehen.

Izena emateko prozesuarekiko edozein zalantza izanez gero, mezu bat idatz daiteke ondoren-

go helbide elektronikora: [sopORTE@rockthesport.com](mailto:sopORTE@rockthesport.com).

Guztira, 700 triatleta inguruk parte hartu ohi dute. Antolakuntzak 600 dortsal zozkatuko ditu, eta gainontzeko ehunak kupoak betetzeko gordeko dituzte (emakumeak eta gizonak...).

Horrelako proba baterako atleta kopurua handia dela esan dute antolatzaileek, eta behar bezala ateratzeko lan handia egin behar izaten dutela. Horretarako, 300 boluntario baino gehiago aritzen dira laguntzen proba baino lehenago eta egunean bertan.

# Udaltzaingoaren egoitza berriaren proiektua, martxan

## -ERREDAKZIOA

Nafarroa kaleko 23 zenbakiko udal eraikina eraberritzeko proiektua aurkeztu dute Maite Garrastazu Herri Segurtasuneko zinegotziak eta Xabier Txurruka alkateak. «Zarauzko Udaltzaingoa behar bezalako instalakuntzak izateko ordua iritsi da», hala baieztatu du Txurrukak.

Egun, eraikin horretan Gurutze Gorria, Zingira-Babes Zibila, Odol Emaileen Elkarte eta Done Jakue Bide Lagunen elkarteak dute beraien egoitza, eta Udal Gobernuaren asmoa, datorren urtean eraikina eraberritzea da, Zarauzko Udaltzaingoaren egoitza berria bertan kokatzeko. Elkarte horiekin udala elkartu dela jakinarazi du alkateak, beraien egoitzen kokapen berria

landu eta adosteko. «Interes orokorrekoa da egungo instalakuntzen egoera hobetzea».

Udala eraikinaren kanpoaldea birgaitzeko obren proiektua lantzen ari da une honetan. Horrez gain, asmoa eraikina handitzea da, kanpoko soto bat eta solairu guztiak komunikatuko dituen «nukleo» batekin. Arkitektoak exekuzio proiektua idazten ari dira.

Proiektua gauzatuz gero, Gipuzkoa kaleko Udaltzaingoaren bulegoak duen azalera baino ia lau aldiz handiagoa izango luke berriak. «Udalak 2019 eta 2020 ekitaldietan egin beharreko inbertsioa 1.700.000 ingurukoa (BEZ barne) izatea aurreikusten da, eta, beraz, datorren urteko aurrekontuen proposamenak

dagokion partida jaso beharko du», zehaztu du Txurrukak.

## Zerbitzua «hobetu»

Garrastazuk azaldu du eraikin berriaren programak 850 metro koadroko azalera jasotzen duela. Egungo egoitzak 225 metro koadroko azalera erabilgarria dauka, eta egungo Udaltzaingoaren jarduerari erantzuteko baliabide «urriak» dituela azaldu du. Eraikin berriaren proiektua Udaltzaingoko kideekin batera landu eta adostu dute, eta hainbat espazio jasotzen ditu: herritarren harrerarako, administraziorako, langileei mugatutako espazio pribatuak (jangela eta aldagelak, besteak beste), eta bestelako espazio osagarriak (biltegia, kalaboza eta abar).



Txurruka eta Garrastazu, proiektuaren aurkezpenean. ZARAUZKO UDALA

# Asier Izpizuak irabazi du Euskadiko K1 gerrikoa Zarauzko txapelketan

Jendetza bildu da Aritzbatalde kiroldegian jokatu den K1-Euskadi Txapelketan • Denera, zazpi borrokaldik osatu dute txapelketa, eta azken lehian jokoan izan da Euskadiko gerrikoa

– AIORA LARRAÑAGA

**SOLABERRIETA** Zarautz

Kuraia Fight Clubek antolatuta, K1 Euskadi Txapelketa jokatu zen larunbatean Zarauzko Aritzbatalde kiroldegian. Jendetza bildu zen borrokaldiak bertatik bertara ikustera, eta ikuskizun bikainaz gozatu zuten, gainera.

Denera, zazpi borrokaldik osatu zuten txapelketa, eta gizonen azken borrokaldian Euskadiko K1 gerrikoagatik lehiatu ziren Jon Sarasketa eta Asier Izpizua; azken horrek irabazi zuen norgehiagoka.

**K1 gero eta ezagunagoa**

Zarauzko Kuraia Fight Clubeko Asier Garaiar da txapelketaren antolatzailea, eta «oso gustura» dago emaitzarekin. «Gero eta jende gehiagok ezagutzen du K1 diziplina. Izan ere, Kick Boxingaren antzekoa da, baina hainbat desberdintasun dute», azaldu du. K1a kontaktuko kirola izanik, antolatzaileek jakin badakite hasieran zenbait gogorra iruditzen zaiela, «baina aurkariari errespetua, kiroltasuna eta laguntasuna dira K1aren ardatzak, eta jendeak diziplina sakinago ezagutzen duenean, beste iritzi bat izan ohi du». Zarauzko Kuraia Fight Cluben esaterako, 40 lagun inguru biltzen dira, eta urtez urte kopurua hazten ari dela aitortu du.



Asier Izpizua txapelduna bere taldearekin eta Iban San Martin Zarauzko Kirol zinegotziarekin. KURAI FIGHT CLUB

**Emaitzak**

- **Gizonen K1 borroka libre, 71 kilo azpiko kategorian.** Joseba Diazek irabazi zion Ivani, puntuengatik.
- **Gizonen K1 borroka librea, 71 kilo azpiko kategorian.** Joseba Diazek irabazi zion Ivani, puntuengatik.
- **Gizonen Kick Boxing amateur, 64 kilo azpiko kategorian.** Iñaki Riestrak irabazi zion Jose Luis Amilibiari, puntuengatik.
- **Emakumeen Kick Boxing amateur, 54 kilo azpiko kategorian.** Ainara Torbisco eta Sandraren arteko borrokaldia baliogatu egin zuten epaileek.

- **Gizonen Kick Boxing amateur, 71 kilo azpiko kategorian.** Hamzak Mario Marunegiri irabazi zion, KO eginda.
- **Gizonen K1 Neo Profesionala, 72 kilo azpiko kategorian.** Gonzalo Praderak irabazi zion Borja Oioni, puntuengatik.
- **Gizonen Kick Boxing amateur, 65 kilo azpiko kategorian.** Txomin Astigarragak puntuengatik irabazi zion Danieli.
- **Gizonen K1 Profesional maila, 58,2 kilo azpiko kategorian.** Asier Izpizua Jon Sarasketari irabazi zion, KO eginda.

# Lourdes Salsamendi izango da EAJren Orioko alkategaia

– A. LARRAÑAGA

**SOLABERRIETA** Orio

Orioko EAJk jakinarazi du Lourdes Salsamendi Goñi izango dela 2019ko udal hauteskundeetan alderdiaren Orioko zerrendaburua. Hurrengo egunetan aurkezpen ofiziala egingo badute ere, Salsamendik adierazi duenez, «oso gustura» dago erronka berriarekin, eta «Oriok etorkizun oparoa izan dezan lan egiteko ilusio handia du».

Agintaldi honen amaieran zortzi urte beteko ditu Salsamendik Orioko Udalean zinegotzi, eta «gogotsu» dago Orioren alde lanean jarraitzeko.


**Eskarmentua udalean**

Orioko Udaleko martxa ondo ezagutzen du Lourdes Salsa-



Lourdes Salsamendi Goñi izango da EAJko alkategaia. GBB

mendi EAJren alkategaiak. Izan ere, indarrean dagoen agintaldian, Kultura, Turismo eta Euskara batzordeburua izan da, Jose Angel Zaldua alkate dela. Azken horrek agintaldi bat egin du alkate karguan.



# Memoriaren Egunean, biktimak gogoan

Launbatean Memoriaren Eguna izan zen. Azpeitian, Azkoitian eta Zarautzen (irudian) hainbat ekitaldi egin zituzten indarkeriaren biktimak gogoan izan eta giza eskubideen urraketak salatuzko. A.L.S.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

(HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDEZAK) DIRUZ LAGUNDUA



## SARRERAK

**ZERURA ERORIA**

Azaroak 16 ostirala  
22:00etan  
Oxford aretoan  
3 sarrera bikoitz



Sarrerak eskuratzeko:  
Osteguneko 15:00ak baino lehen. Telefonoz: 943-89 0017  
Internetoz: [urolakosta.hitza.eus](http://urolakosta.hitza.eus) helbidean Harpidedunen Txokoa atalean. Saridunen izenak ostiralean argitaratuko ditugu.

**ERRIGORA SASKIAK**

2 saski



harpidedunen  
**TXOKOA HITZA**



Dantza saio hauetan parte hartzen ari diren zumaia batzuk. JUAN LUIS ROMATET

## «Dantza eta jolas egitea da asmoa, barruan dugun haur hori ez ahazteko»

Herriko nagusiei zuzenduta dantza saio bereziak egiten dira hilean bitan, Torreberrin • Dantza egiteaz gain, jolasak ere egiten dituzte, baita taldelana edo enpatia landu ere

### –JUAN LUIS ROMATET

Asteazken goiza. Kiroletako arropa koloretsuz jantzitako emakume taldea Torreberri erai-kinaren kanpoaldean dago. Irri-barretsua daude, pozik, eraikineko goiko solairuan egingo duten saioan parte hartzeko gogotsu. Ordu eta laurden iraungo duen ekintzan dantza eta barre egingo dituzte.

Alazne Martinezek gidatzen ditu adinekoentzako saioak. Oraingoan, hilean bitan biltzen dira Torreberrin. Martinez Team

Wale dantza urbano eta hip hop taldeko arduraduna da. Berak adinekoekin egiten dituen saioetan, baina beste era bateko jarduerak gauzatzen ditu. «Helburua ez da dantza egitea bakarrik, edo dantza estilo bat ikastea. Talde espiritua suspertu nahi dugu dantzaren bitartez», azaldu du Martinezek.

Saioak aurreneko aldiz antolatuta dituzte Zumaian, eta Martinezek gogoratu duenez, ezustean sortu ziren. «Parke batean geunden behin, lagun ba-

tzuk, gure haurrekin. Dantzako jolas bat egin ari ginen, eta parkean zeuden beste neska batzuk inguratu zitzaizkigun. Aita-amaginarreben lagun batzuk zeuden begira, eta, brometan, galdetu nien ea gustatu zitzaien. Baietz esan zidaten. Ez hori bakarrik: beraientzako antzerako zerbait antolatzea animatu ninduten».

Esan eta egin. «Familiako kontu batzuk nituelako, urtebetez atzeratu zen kontua. Uda aurretik, gauzak konpondu zirenean,

Behoko Plaza elkartarekin eta Udal Kultura eta Gizarte Zerbitzuen sailekin hitz egin nuen egitasmoa abian jartzeko».

«Zerbait atsegina» egiteko helburua zuela dio Martinezek. «Badirudi dantzaren eta musikalitatearen gaia umeekin lotzen dugula, baina helduez ahaztu egiten gara. Nagusi guztiei gustatzen zaie dantza egitea! Asmoa dantza egitea da, baina baita jolas egitea ere, barrenean darabagun haur hori ez ahazteko».

Egitasmoak izandako harrearekin harridura geratu zela dio saioen irakasleak. «Lehen saio ireki bat egin genuen, eta aretoa bete egin zen. Oso ondo pasatu zuten, jolasean aritu ziren eta parte hartzera animatu ziren».

### Etxetik irteteko arrazoia

Saioak hilabete behin egiten dituzte, bi taldetan banatuta. Nagusientzako ekintza onuragarriak direla uste du Martinezek. «Etxetik ateratzeko arrazoi bat dute hala. Badira familiarik ez duten alargunak, eta honek etxetik irteteko eta ekintzetan parte hartzeko aukera ematen die. Desinhibitze eta errealtatea une batez bada ere ahazteko balio die», gaineratu du saioen gidariak.

Saioen helburu nagusia ondo pasatzea da. «Dantza eginez oso ondo pasatzen dugu. Baina jolas asko egiten ditugu, enpatia eta masajeak landuz. Nagusiak bihurtzean, edo, hobe esanda, helduak egiten garenean, jolas egitea ahaztu egiten zaigu. Beti esaten diet barre egitera eta ondo pasatzera etortzen garela. Gero, dantza egiten badute, izerdia botatzen badute eta ariketa fisikoak egin badituzte, hobe. Niretzako oso garrantzitsua da beraiek libre sentitzea barre egiteko, bereziki, barre egiteko. Egun horretan jolasten badute, barre egiten badute eta, gainera, saioetara berriro itzultzeko go-go badute, egun berezia da».

## Odol emateko hitzordua da bihar

**ZUMAIA** // Bi hilean behineko odol emateak egingo dira asteazken honetan 16:30etik 20:30eta bitartean Eusebio Gurruztaxaga plazako gizarte zentroko bigarren solairuan. Gabonetako loteria ere salgai izango dela adierazi du Zumaia odol emailen taldeak.



Harraldea garbitzen. W. PRINSE

## 2.500 kilo plastiko bildu dituzte Harraldean

**INGURUMENA** // Eguzki talde ekologistak deituta, larunbatean Zumaia eta Deba arteko harraldea garbitzen aritu ziren 200 lagun inguru. Eguzkitik azaldu dutenez, harrigarria izan zen harraldean topatutako hondakin kopuru handia. Ahal zena bildu, eta gainontzekoa mareen eraginpetik aldentzen saiatu ziren. Guztira, 2.500 kilotik gora plastiko atera dute. Zabalgunea garbitzen aritu direnek naturarekiko eta herrigintzarekiko «kontzientzia eta konpromisoa» erakutsi dutela uste du Eguzkik.



iragarkilaburrak.eus



Bigarren eskuko batera ederra

Artaldea salgai



Azpeitiko Bertan merkatari elkarteak bat egin du Euskaraldiarekin. HITZA

# Euskaraldiko bi girotze saio antolatu dituzte Azpeitian

Gaur izango da lehenengoa eta azaroaren 21ean bigarrena  
• Azpeitiko Ahobizientzat eta Belarriprestentzat dira

**-ERREDAKZIOA** Azpeitia Euskaraldiko bi girotze saio antolatu ditu Azpeitiko Euskaraldiko lantaldeak. Gaur egingo dute lehen girotze saioa, 19:00etatik 20:00etara, Sindikatu Zaharrean. Girotze saioak Azpeitiko Ahobizientzat eta Belarriprestentzat dira. Saio horietan azalduko dute, oso arin eta modu praktikoan, zer konpromiso hartzen diren rol horiek hautatzean, eta zer egoera egokitu diren. Horrez gain, egoera horietan eroso sentitzeko aholkuak emango dituzte eta iritziak elkarbanatzeko aukera ere izango da.

Azpeitian Euskaraldia bultzatzen ari den lantaldeak herritar guztiak animatu ditu tailer horietan parte hartzera, «aberasgarria izango delako denontzat». Bertaratzeko asmoa dutenek mezu bat bidaltzeko eskatu dute honako helbidera: [azpeitia@euskaraldia.eus](mailto:azpeitia@euskaraldia.eus).

Datorren asteko asteazkeneko, azaroaren 21erako, beste girotze saio bat antolatu dute, 19:00etatik 20:00etara, Sindikatu Zaharrean. «Tailer bera emango dugu bi egunetan, baina saio bat baino gehiago eskaini nahi izan ditugu, herritarrek aukera izan dezaten beraien egutegira moldatzeko», adierazi du Euskaraldiko lantaldeak.

Girotze saiora joaten direnek aukera izango dute Euskaraldiko txapa bertan jasotzeko. Gai nontzekoentzat, datorren astean, astelehenetik ostegunera, egunero, Azoka Plazan izango da aukera txapak jasotzeko, 18:30etik 20:00etara.

Azpeitian milatik gora herritarrek eman dute izena Euskaraldian parte hartzeko. Izena eman gabe dutenek Internetez [izene-matea.euskaraldia.eus](http://izene-matea.euskaraldia.eus) webgunearen bitartez eman dezakete. Iraurgi Ikastetxeko Jose Artetxeko eraikinean (Betharram zena) izena emateko mahaia jarriko dute gaur eta bihar 17:00etatik aurrera.

# Euskaraldiko Biziprest saioa egingo dute ostegunean Getarian

**-ERREDAKZIOA** Getaria Azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean Euskal Herri mailan egingo den Euskaraldia ariketa sozialerako prestaketa saioa antolatu du Getariako Euskaraldiko lantaldeak. Biziprest saioa ostegunean izango da, 19:00etan hasita, Alondegian. Saio hori Axun Larburu Uemako teknikariak gidatuko du.

Osteguneko Biziprest saioan aukera izango da Euskaraldia ariketaren xehetasun guztien berri izateko: zein den Ahobizientzen egitekoa, zein Belarriprestena, Getariak zer nolako garran-

tzia duen euskararen normalizazioari dagokionez... Euskaraldirako izena eman duten getariar guztiak animatu dituzte etziko saioan parte hartzera.

## Txapak non jaso

Euskaraldirako izena eman gabe dutenek oraindik ere horretarako aukera dute Getariako Turismo Bulegoan. Izena emanda dutenek, berriz, Turismo Bulegoan jaso behar dituzte txapak. Honako da ordutegia: astelehenetik ostiralerara 10:00etatik 13:00etara eta 16:15etik 18:15era eta larunbatetan 09:30etik 13:30era.

## Irudia Orio



# Giro ederra Euskaraldiko entrenamendu saioan

Ostiralean Euskaraldirako entrenamendu saioa egin zuten Orion, eta jendetza bildu zen «aspaldiko pintxopoterik euskaldunena» egiteko xedez. Euskaraldiko lantaldeak oholtza txiki bat jarri zuen Antilla tabernaren aurrean, eta bertan ekimenean parte hartuko duten hainbat herritarrek beren testigantzak azaldu zituzten. Dagoeneko, 1.041 oriotarrek eman dute izena Euskaraldirako. KARKARA.EUS



hemendik <sup>h</sup>ona  
Noticias de Gipuzkoa

Tokiko produktuekin egindako afori berezia

Txistorra pintxo eta harrera kopa · Babarrun beltzen txupitua  
Odolkia eta mondejua, aza kremarekin · Garaiko perretxikoen nahaskia  
Lumagorri oilaskoa, ziazerba kremarekin · Sagar-gozokia gazta eta intxaurrekin

Sustatzaile instituzionalak:



Babeslea:



29 azaroa osteguna

20.30ean 26€  
11 jatetxe aukeran

Egin erreserba:  
[www.hemendikhona.eus](http://www.hemendikhona.eus)  
943 319 200

# Eskaera berretsi behar da babes ofizialeko etxeen zozketan parte hartzeko

320 lagunek eman dute alta Etxebiden, eta horiek gutun zertifikatua jasoko dute • Gutuna Azpeitiko Udaleko Arreta Zerbitzuan aurkeztu beharko dute abenduaren 3a bitartean

– JULENE FRANTZESENA

Azpeitia

Esklabak-Iturtzulo eremuan erakiko dituzten babes ofizialeko etxebizitzaren zozketan parte hartzeko izena eman duten lagunek berretsi egin beharko dute eskaera. Udalak jakinarazi duenez, 320 lagunek eman dute alta Etxebiden, eta horiei gutun zertifikatua bidaliko die erakundeak etxera datozen egunetan. Gutunazal horretan, etxebizitzaren gaineko informazioa ez ezik, zozketan parte hartu ahal izateko orria ere jasoko dute herritarrek, eta orri hori da, hain zuzen ere, abenduaren 3a baino lehen udal txeko Herritarren Arreta Zerbitzuan aurkeztu beharreko dokumentua. Orri hori izango da herritarrek zozketan parte hartzea nahi dutela berresteko balioko duena.

Udal sustapeneko etxebizitzetan izena eman zuten herritarrek ez dute halako orririk aurkeztu beharko; izan ere, ho-



Esklabak-Iturtzulo eremuko lanak.

riek zuzenean sartuko dira etxebizitzaren zozketan.

Abenduaren 10ean argitaratuko du udalak etxebizitzaren zozketan parte hartuko duten pertsonen behin-behineko zerrenda, eta hori udal txeko iragarkien taulan nahiz udalaren *Azpeitia.eus* webgunean ikusi ahal izango da. Zozketatik kanpo gelditzen diren herritarren zerrenda ere jarriko du ikusgai erakundeak, eta erreklamazioa

aurkezteko hamar eguneko epea zabalduko du. Udalak jakinarazi duenez, 2019 hasieran egingo dute etxebizitzaren zozketa.

Esklabetako eraikinaren atzealdean, 129 etxebizitza sozial eraikiko dituzte; horietatik 68 babes ofizialekoak izango dira, eta lehenengo fasean 29 etxebizitza egingo dituzte. Gai nontzeko 61ak, berriz, udal sustapenekoak izango dira.

# ‘Eskaini Berria zure tabernan’ kanpaina martxan jarri dute

– IHINTZA ELUSTONDO

Uema Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak eta Berria Taldeak *Eskaini Berria zure tabernan* kanpaina jarri dute martxan. Euskaraz irakurtzea eta ostalaritzan nahiz zerbitzu sektorean euskarazko prentsa herritarren eskura egotea euskaraz bizitzearekin lotzen ditu kanpainak, eta irakurketa ohituretan euskara sustatzea du helburu. Egitasmo horrekin bat egin dute 24 udalek, eta horien artean daude Azpeitiko eta Zumaiakoa. Aurrerantzean, udal gehiago gehitu daitezke kanpainara.

Tabernetara, jatetxeetara eta kafetegietara Uemak eta Berria Taldeak sinatutako gutuna bidaliko dute, nahi duenari hilabetez *Berria* egunkaria doan jasotzeko aukera emanez. Ostalariek nahikoa izango dute *harpidetza@berria.eus* helbide elektronikora edo 674 079 081 Wahatsapp zenbakira idaztea hilabeteko harpidetza doan eskatzeko. Era berean, Berria taldeak edozein herritarri aukera emango dio esateko zein tabernatan, jatetxetan edo kafetegitan irakurri nahiko lukeen *Berria*. Nahikoa da eskaera

[www.berria.eus/eskatuberria/](http://www.berria.eus/eskatuberria/) helbidean egitea. Datuak eskuratzean, Berria Taldeak hilabete batez doan banatuko du egunkaria taberna, jatetxe edo kafetegi horietan.

Ondoren, nahi izanez gero, taberna, jatetxe edo kafetegi horrek, hurrengo sei hilabeteetan, eskaintza berezi baten bidez jaso ahal izango du egunkaria. Zehazki, Berria Taldearen sei hilabeteko eskaintza horri esker, *Berria* egunero jasoko du ostalariak, 150 euroren trukean. Gastu horren erdia tabernariak eta beste erdia udalak ordainduko



# ‘Lekaiame’ saritu dute Asier Errasti jaialdian

Xanti Rodriguez azpeitiar argazkilaria eta zinemagileak beste aitortza bat jaso du. Izan ere, Eibarko XIX. Asier Errasti jaialdian euskarazko film labur onenaren saria eskuratu du *Lekaiame* lanari esker. Zapatuan egin zuten sari banaketa ekitaldia Eibarko Coliseo antzokian. Aurtengoan, 150 bat lan aurkeztu dituzte sortzaileek sariketara. XANTI RODRIGUEZ

## Loiola eta Azpeitia arteko errepidea itxita izango da gaur

**AZPEITIA** // Gaur ere itxita izango da Loiola eta Azpeitia arteko N-2634 errepidea. Hainbat azpiegitura lan egingen ari dira atzo hasita, eta horregatik izango da itxita. Horrenbestez, Loiolatik Azpeitira arteko bidea Sanjuandegi atzeko errepidetik egin beharko dute ibilgailuek. Udalak «barkamena» eskatu du sor daitezkeen arazoengatik.

## Kirol Sarietarako hautagaiak aurkez daitezke

**AZPEITIA** // Udalak abenduaren 15ean banatuko ditu aurtengo Kirol Sariak, eta herritarrek dagoeneko aurkez ditzakete hautagaiak. Hilaren 18ra arte egin daitezke proposamenak [kirolak@azpeitia.eus](mailto:kirolak@azpeitia.eus) helbidera idatzita, 943-15 00 95 zenbakira deituta edo Udala Harrera Erregistrora bertarata. Ondoren zabalduko dute botoa emateko epea.



Berriako, Uemako eta hainbat udal txeko ordezkariak. UEMA

luke; horretarako prest agertu dira kanpainarekin bat egin duten 24 udalak.

Kanpaina Euskaraldiarekin lotu dute, egitasmoa hizkuntza ohiturak aldatzeko egitasmoa delako. Martxelo Ota-mendi *Berria* egunkariko zu-

zendariak eskerrak eman dizkie Uemari zein kanpainan parte hartu duten udalei, guztien ekarpenari esker ostalariek erraztasunak izango dituztelako *Berria* eskuratzeko eta egunkaria herritarrei eskaintzeko.

## Azkoitiko San Jose egoitzan Adinduen Astea ospatuko dute gaurtik aurrera

### -IHINTZA ELUSTONDO

Azkoitiko San Jose egoitzan Adinduen Astea ospatuko dute gaurtik igandera bitartean. Pertsona nagusiek gizarteari egiten dioten ekarpena aitortzea du helburu egitasmoak, egoiliarren esperientzia, balioak eta ematen duten eredu aintzat hartuta.

Aurten izango da berrikuntzarik; lehen aldiz, Boluntarioen Eguna antolatu dute larunbaterako. Egun horretan, egoiliarrei laguntzera eta konpainia egitera joaten diren boluntarioak haiekin batera afaltzera joango dira. Horrez gain, bisitak jasoko dituzte egoiliarrek: Floreaga ikastetxeko, Xabier Munibe Ikastolako eta Azkoitia BHIko ikasleak joango dira egoitzara, eta Bizkargi musika eskolakoak eta Txalkor txistulari taldekoak ere han izango dira giroa alaitzen.

Bisitez gain, XXVIII. Seiko Urre Txapelketa, txokolatada eta bingoa izango dituzte. Edizioari amaiera emateko, asteburuan ere hainbat ekintza egingo dute. Larunbatean, afalduan, Iñaki Basabe abeslaria arituko da bere gitarrarekin, eta igandean, Sendiaren Eguna ospatuko dute. Javier Zubizarreta alkateak eta Nekane Larrañaga zinegotziak egoiliarrei opariak banatuko dizkiete, senideekin hamaiketakoaz gozatzen duten bitartean.

### Adinduen Astea

-Azaroak 13, gaur. 16:00etan txokolatada, eta 16:30ean Floreaga ikastetxeko bisita.

-Azaroak 14, bihar. 16:30ean, Seiko Urre Txapelketa.

-Azaroak 15, osteguna. Xabier Munibe Ikastolako eta Azkoitia BHIko bisita, 16:30ean.

-Azaroak 16, ostirala. 16:00etan txokolatada; 16:30ean, bingoa.

-Azaroak 17, larunbata. Boluntarioen Eguna. 16:30ean Bizkargi musika eskolako bisita, eta 19:30ean Iñaki Basaberekin afari girotua.

-Azaroak 18, igandea. Sendiaren Eguna. 10:00etan, Txalkor txistulari taldea; 11:00etan, meza; 12:00etan, hamaiketako eta opari banaketa; eta 13:30ean, bazkaria.

# Garapenean Bidelagun antolatu dute, pobreziak sentsibilizatzeko

Azkoitiko Udalak eta herrian lan egiten duten zortzi Gobernu Kanpoko Erakundeek antolatu dute egitasmoa • Kale antzerkiak, film emanaldiak eta azoka egingo dituzte

### -ANE OLAIZOLA

Azkoitiko Udalak eta herrian lan egiten duten hainbat Gobernu Kanpoko Erakundeek nahiz fundazioek Garapenean Bidelagun egitasmo solidarioa antolatu dute, eta talde horien lana gizarteratzeko eta herritarrak pobreziaren inguruan sentsibilizatzeko ekintzak prestatu dituzte datozen egunetarako.

Ostegunean aurkeztu zuten egitasmoa Nekane Larrañaga Gizarte Ongizateko zinegotziak eta han parte hartuko duten erakundeetako batzuek. Aurten, Azkoitian lan egiten duten honako zortzi talde hauek batu dira egitasmoa: Gazteak eta Garapena, Behar Bidasoa, Esku Bidez, Lumaltik, The Direct Help, Mundu Solidarioa Helburu, Bidezko Merkataritza eta Acoes. Antolatuzaileen esanetan, Garapenean Bidelagun egitasmoak helburu bat baino gehiago ditu, eta horietako bat da erakundeek herrialde pobreen garapenerako gauzatu dituzten proiektuen berri ematea herritarrei. Era berean, herritarrak sentsibilizatu nahi dituzte, eta asmo horiei jarraituz, askotariko ekintzak prestatu dituzte: Esku Bidez taldeak antolatutako Zuk dokumentalarekin eta Izaroren kontzertuarekin hasi dute egitasmoa asteburuan, eta datozen egunetan kultur arloko ekintzek hartuko dute herria, herrialde pobreetako errealitatea ezagutu dezan jendeak. Hain zuzen ere, hilaren 15ean eta 22an, Larrialditan eta Welcome! kale antzerkiek hartuko dituzte herriko txokoak, bi egun horietan Azkoitian pintxo potea egiten dela probestuta. Hilaren 18an eta 19an, berriz, Philippe Lioretz zuzendutako Welcome (Frantzia, 2009) filma emango dute Baztartzoren asteroko eskaintzaren barruan. Horrez gain, azaroaren 25ean azoka egingo dute plazan, eta erakunde bakoitzak bere postua jarriko du, beren jardunaren berri emateko herritarrei.

Egitasmoan parte hartuko duten erakundeetako batzuk izan ziren aurkezpenean, eta bakoitzak bere lanaren berri eman



Garapenean Bidelagun egitasmoaren aurkezpena. ANE OLAIZOLA

zuen. Migratzaileei laguntzeko eta migrazio krisiaz sentsibilizatzeko sortu berri den Esku Bidezek lehenengoz parte hartuko du egitasmoan. Itsas Laguntza Humanitarioari laguntzea da haien asmoa, eta Nerea Machado taldekideak gogoratu zuen erakunde hori Espainiako Gobernuaren baimen baten zain dagoela azken hilabeteetan, Aita Mari ontzia itsasoratu dezaten. Hain zuzen ere, sinadura hori «lehenbailehen lortzea ezinbestekoa» dela deritzo kideak.

The Direct Help, berriz, Nepalen lan egiten duen fundazioa da, eta Pello Larrañaga kideak azaldu zuenez, batez ere umeei eta emakumeei laguntzen die. Hainbat proiektu eta zentro dute herrialde horretan, eta, gainera,

umeak besoetan hartzen dituzte, hileko kuota baten bidez. «Hala, umeen eskolatzea, eta janaria eta arropa jasotzea bermatzen da». Era berean, emakumek lanbide bat izan dezaten, josten erakusten diete.

Juan Inazio Sudupek, berriz, Gazteak eta Garapena fundazioaren berri eman zuen. Salestarrak sortutako fundazioa da hori, eta tokian tokiko ordezkariak ditu; Azkoitiko, kasu. Azkoitiko taldeak, bereziki, Beningo umeen aldeko proiektuak garatzen ditu, eta Sierra Leonan ere hainbat egitasmo du martxan. Suduperen esanetan, lau arlo jorritzen ditu fundazioak: sentsibilizazioa, proiektu zehatzak, boluntariotza eta heziketa. Urtean zehar, hamaika ekintza anto-

### Garapena Bidelagun

#### AZAROAK 15, OSTEGUNA

Arratsaldean, larrialditan kale antzerkia, kalean.

#### AZAROAK 18, IGANDEA

19:30. Welcome filma, Baztartzo antzokian.

#### AZAROAK 19, ASTELEHENA

20:00. Welcome filma, 20:00etan, Baztartzo antzokian.

#### AZAROAK 22, OSTEGUNA

Arratsaldean, Welcome! kale antzerkia.

#### AZAROAK 25, IGANDEA

11:00-13:30. Azoka, plazan.

latzen dute esku artean dituzte egitasmoak gauzatzeko.

Behar Bidasoak, berriz, Afrikan eta Hegoamerikan lan egiten du, eta Azkoitiko Udalak emandako laguntza Ruandako Kabuga hirian daukaten proiektura bideratzen du. Iñaki Lizaso taldekidearen arabera, hango bizi baldintzak «oso txarrak» dira, eta «egoera tamalgarrian» bizi diren emakumeei, nagusiei, gaixoei eta umeei laguntzen diete. Hain zuzen ere, erakundeak etxebizitzak egiten dizkie haiei, eta jakinarazi zuenez, udalak emandako diruari esker hogeitxebizitzak egin dituzte.

## Eskelak

Hilberriak  
Urteurrenak  
Eskertzak

UROLA KOSTAKO HITZAn jarrita,  
Goierriko Hitzan eta Atarian DOAN

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

Eskelak 18:30ak arte hartzen ditugu  
urolakosta@hitza.eus / Tel.: 943-89 00 17

Eskelak orain TXIKIA (82mm x 64mm): 100 € / \*Harpidedunentzat: 50 €  
HANDIA (124mm x 64mm): 150 € / \*Harpidedunentzat: 75 €  
merkeago ESKERTZA (38mm x 64mm): 50 € / \*Harpidedunentzat: 25 €

\*Harpidedunak HITZAko bulegotik pasa  
Bez barne

**Argitaratzailea:** Urola-Kostako Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0188-04. ISSN. 1697-8587  
**Zuzendaria:** Nerea Uranga.  
**Egoitza nagusia:** Zarautz. Araba kalea 27, 20800, 943-89 00 17. **Azpeitia.** Perez Arregi 1, behe, 20730. 943-81 38 41.  
**Posta elektronikoa:** urolakosta@hitza.eus.  
**Webgunea:** urolakosta.hitza.eus.  
**Zuzendariordea:** Aritz Mutiozabal.  
**Kudeatzailea:** Uxua Ostolaza.  
**Publizitatea:** Urola Kosta: 673 69 90 95. publiuro-la@hitza.eus.  
**Zarautz:** 607 49 87 28. 607 61 52 39. zarautz@hitza.eus.  
**Orio-Aia:** 607 49 87 23. orio@hitza.eus. **Zumaia-Getaria:** 607 49 87 23. zumaia@hitza.eus. **Azpeitia:** 607 49 87 25. azpeitia@hitza.eus. **Azkoitia:** 607 49 87 27. azkoitia@hitza.eus. **Zestoa-Aizarnazabal-Errezil-Beizama:** 607 49 87 27. zestoa@hitza.eus.

Urola-Kostako Hedabideak S.L.ko kideak:



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aia, Aizarnazabal, Azkoitia, Azpeitia, Beizama, Getaria, Errezil, Orio, Zarautz, Zestoa eta Zumaia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko):  
**902 82 02 01**



**Temperatura**  
**V 16°**  
**A 8°**

Mareak	
Itsasgora	07:36-20:01
Metroak	4,14-4,29
Itsasbehera	01:24-13:54
Metroak	3,59-3,28

[zarauzkohitza.eus](http://zarauzkohitza.eus) / [urolakosta.hitza.eus](http://urolakosta.hitza.eus)



**-IHINTZA ELUSTONDO**

**A**zaroaren 11ren bueltan, samartinak ospatu dituzte asteburuan Urola Kostako hainbat herritan eta auzotan. Hain zuzen ere, Aiako Urdenetan, Azkoitiko San Martinen, Azpeitia eta Zestoako Lasaon, Azpeitiko Errebalean, Errezilen, Getariako Askizun, Orioko Ortzaietan eta Zarauzko San Martin ermitaren inguruan izan dira festak, eta giro ederra nagusitu da leku horietan.

Errezilen herriko festak ospatzen ari dira. Ostiralean bota zuten txupinazoa festetan goizero kaleak auzolanean garbitzen dituzten herritarrek. Larunbatean ere jai giroa izan zen nagusi herrian, eta igandean amaitu zituzten asteburuko ekitaldiak, San Martin egunez. Eguerdietan, herriko produktuen azoka eta gazta eta tarta lehiaketa herrikoiak egin zituzten frontoian, eta jende asko ibili zen sartu-irtean.

Hiru gaztagilek parte hartu zuten gazta lehiaketan, eta Aitzar-tekoentzat izan zen saria. Tarta lehiaketan, berriz, herritarrek aurkeztutako zazpiren artean aukeratu behar izan zuen epaimahaiak, eta Bittori Otaegik aurkeztutakoa izan zen lehiaketa irabazi zuena. Arratsaldean, bertso saioa eskaini zuten Andoni Egañak, Onintza Enbeitak, Agin Laburuk eta Alaiia Martinek, Nekane Zinkunegi gai jartzaile zutela.

Asteburuko ekitaldiak amaituta, datorren asteburura arte agurtu dituzte jaiak Errezilen.

**Festak, auzoz auzo**

Auzo bakoitzean beren erara ospatu dituzte samartinak. Urdenetan eta Askizun jendetza bildu zen herri kirol saioa ikustera igandean. Azkoitiko San Martin auzoan, hainbat herritar animatu zen kanpaia jotzera. Lasaon azoka eta buruhandiak izan ziren, besteak beste. Errebalean, berriz, sokamuturra eta mus txapelketa izan dituzte. Auzotarren arteko estropada egin zuten Ortzaietan; Idoia Etxeberraren taldea nagusitu zen. Bestalde, hainbat haur joan zen Zarauzko Talaimendi auzoko ermitara.



Eskualdeko hainbat herritan eta auzotan ospatu dituzte samartinak asteburuan. HITZA

San Martin festak ospatu dituzte asteburuan eskualdeko hainbat txokotan. Errezilen herriko jaiak dituzte, eta besteak beste, azoka, gazta nahiz tarta lehiaketak eta bertso saioa izan dituzte.

# Ederki ospatu dituzte samartinak